

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa bat aurrera joan dezan ezinbestekoa da bazkideak egotea. Beraz, gure enpresaren bazkideak zeintzuk izango ziren zehaztea beharrezkoa zan. Lehenik eta behin, gu, proiektuaren fundatzaileak. Bestetik, udaletxearen laguntza. Azkenik, akziodunak ere egingo dira.

Coppo enpresaren sortzailea lau emakume gazte izan gara. Lehenik, Ane Prieto dugu enpresaren ingeneritzaile bezala. Bestalde, Marta Badiolak administrazioaren kontuak eramateaz arduratzen da. Azkenik, aplikazioa eta teknologiaren arloak ondo funtziona dezaten Ane Roussel eta Elene Fernandez daude arduradun. Guri enpresaren %50aren zatia egokitzen zaigu.

Bestetik, Donostiako aparkaleku publikoari buruz hitz egiten ari garanez udaletxeak pisu handi bat du. Horregatik, udaletxeak %40a finantziatuko dula adostu dugu. Bestalde, beraiek erabaki guztietan parte hartzeko beharra dute. Udaletxearekin lan egitea azkenean guretzat abantail handi bat izan daiteke.

Azkenik, akziodun batzuk izango ditugula adostu genuen. Akziodunen pisua txikia izango da, soilik %10aren zatia edukiko dutelako. Baina, kasu batzuetan ezin bestekoak dira proiektu berriak aurrera eramateko.

Ondorioz, gure enpresari hasiera emateko funtsezkoak izango diren elkarteak bereziki udaletxea eta akziodunak izango dira. Bereziki, udaletxea, haiek hasiko direlako martxan produktu guztia jartzen. Hala ere, ez da ahaztu behar aplikazioaren diseinuataz etab. gu arduratuko garela.